

eta baita homosexual eta lesbianon kasuan ere. Ezkontza, harremanen betikotasuna —ezkontza betiko egiten baita oinarrian, nahiz eta dibortziorako aukera izan—, Estatuari bere baloreak gordetzen segitzeko egokien datorkion forma da; famili nukleoa baino modu hoberik ez du bere helburuak transmititzeko. Beraz, gu ezkontzarekin ez gaude ados. Hala eta guztiz ere, gay eta lesbianon mugimendua oso zabala da, aukera sexualak lotzen gaitu baina ez ideologiak. Orduan, badago ezkontzearen alde dagoen eta ezkontza nahi duen jendea, eta horiek, aukera izan behar dute. Eskubidea aitortu egin behar zaigu. Beste kontu bat da gero batzuek ez nahi izatea.

VICENTE.— Jende askok ezkondu nahi du. Orduan, bururatzen zaiuna zera da: lagundu egin behar zaie aldarrikapen hori lortzen? Bai, lortzen ez bada pertsona batzuei eskubidea ukatzen baitzaie. Aukera denok izan behar dugu, beste gauza bat da norbera ezkontzaren alde egotea edo ez.

RUFO.— Hala ere, gaur egun ezkontzeko eskubidea eskatzea atzerakada da neurri batean. Horregatik, Lesbiana Feministen Kolektiboak eta EHGAMek ere, erregistroak ondo daudela uste dugu, baina arretaz ibili be-



Gertuko harremanak izatean aurriritziak galtzen ei ditu jendeak.

ANDER GILLENIA

tatik asko aurreratzen ari gara, gero eta gehiago baikara eta gero eta esparru zabalagoa hartzen baitugu gure aldarrikapen eta eskaerak aurrera ateratzeko. Gure manifestaldiak ditugu, gure jaiak, gure adierazpen kulturala ere bai.

EGUNKARIA.— Gizartean gertatu al da aurrerakada hori?

VICENTE.— Zertxobait bai. Urte

mofobikoa, baina gero hurbilean gertatzen denean...

RUFO.— Neurri batean badago hipokresia hori. Hala ere, nik jende asko ezagutzen dut uste duena homosexual edo lesbiana ez dela ezagutzen. Eta gero jakiten dutenean inguruan duten pertsona baten aukera sexuala hori dela, egunero hitz egiten duten norbaitena, harritu egiten dira. Harritu egiten dira homosexual edo lesbiana den hori pertsona normala delako, jatorra. Eta orduan, euren jarrera aldatu egiten da. Baina inguruan aukera sexual desberdin bateko pertsona bat ez duen jendearekin topo egiten baduzu, oso ideia erratua izaten dute homosexual eta lesbianon inguruan. Nahikoa izaten da harreman minimoa izatea, hitz egitea eta pertsona normal bat zarela konturaztea onartua

izateko. Baina jende askok gureganako duen jarrera hipokrita da, eta azpian gaitzespena gordetzen du gainera. Askok esaten dute homosexualitatea onartzen dutela eta ez diela enbarazurik egiten, baina etxean, lanean, ondoan, ez dutela nahi. Hortxe dago koska.

VICENTE.— Topikoekin funtzionatzen du gainera gizarteak.

«Ezkontzaren kontra nago, bai heterosexualen bai homosexualen kasuan. Baina eskubidea aitortu egin behar zaigu».

har dela. Izan ere, bi aldeko txanpona dira erregistroak: alde batetik eskubide batzuk bermatzen dira, baina bestetik kontrola ezartzen da. Eskubideak kontrolaren eta zenbait arau betetzearen truke ematen dituzte, eta ez gaude horretarako makurtzeko prest.

EGUNKARIA.— Eskubide zibilak alde batera utziz, gaur egun oraindik beharrezkoa al da gay eta lesbiana taldeak egotea?

VICENTE.— Bai, gure askatasun sexualaren alorrean eta horrelako aldarrikapenetan egiten duguna, osterantzean ez bailuke inortxok ere egingo.

RUFO.— Bai, gure aldarrikapenen uneroko indar bultzatzailea geu gara. Gero badaude beste elkarte, talde eta alderdi batzuk, zenbait aldarrikapen euren programen barruan sarteko prest daudenak. Baina ez dute ekimena hartzen, ez dira bultzatzaileak. Unean uneko kezka, aldarrikapenak, dagozkigun eskubideen eskaera... Horretaz gay eta lesbianen kolektiboak bakarrik arduratzen dira.

EGUNKARIA.— Gay eta lesbianen mugimenduak zer lortu du borrokan jardun duen urte hauetan?

VICENTE.— Lehenengo eta behin anonimotasunean bizi arazi eta baztertzeko gaituen gizarte honen baloreak auzitan jartzea. Sistema kuestionarazi dugu piska bat.

RUFO.— Anonimatoa apurtzea lortu dugu eta heteronorma auzitan jartzen ari gara. Alde horre-

askotan jardun dugu borrokan eta horren emaitzak ikusten dira. Ez nuke pentsatu ere egin nahi, gainera, 15 urtetik gorako borroka hori hutserako izan denik. Ahal genuen neurrian, genituen bitartekoekin, kontraesanei aurre eginez, aurrera egin dugu. Pizkanaka eta urrats txikiak emanez, baina beti aurrera egin da.

EGUNKARIA.— Gaur egun, orain dela urte batzuk baino normaltasun gehiagor bizi al liteke homosexualitatea?

RUFO.— Norberaren egoera pertsonalak zeresan handia du gai honetan —zeure aukera sexuala onesten duzun edo ez, esaterako—, baina oro har gizartean azarna nabarmena utzi dugu. Urrats guztiak aurrera egin dira, eta gainera oraindik itxita dauden ate eta eremu asko zabaltzeko bidean jarri gara.

EGUNKARIA.— Hala ere, hasiera-hasieratik diskriminazioa aipatu duzue...

RUFO.— Bai, eta erreal da. Ez ditugu oraindik eskubide guztiak geureganatu eta jendeak desberdin begiratzen gaitu. Gay edo lesbiana bikote batek kalean elkar musukatzea edo bikote heterosexual batek egitea ez da gauza bera, askoz ere morbo eta indignazio handiagoa sortarazten du.

EGUNKARIA.— Aurrerapausoak eman direla aitortzen duzue, baina ez al dago hipokresia handia gai honen inguruan? Hau da, sektore progresistetan batipat inork gutxi agertuko dute jarrera ho-

«Ziurrenik homosexualitatea baztertua eta zigortuta egon izan ez balitz, askoz ere homosexual gehiago izango litzateke».

Jende askok uste du beste mundu batekoak garela, eta ez da hori. Pertsona normalak gara, gainerako arazo bertsuak ditugunak. Beste kontu bat da gure au-

kera sexuala gaur egun minoritarioa izatea.

EGUNKARIA.— Berdin homosexual, lesbiana edo heterosexual: berez ala egitez izaten da?

RUFO.— Jai, libreak jaiotzen gara. Baina libre sortu arren, jokoera pautak oso markatuak dituen mundu batean bizitzen hasten gara. Inposatutako balore batzuk daude, eta pautak horien arabera hasten zara funtzionatzen. Pertsona guztiok sexuatuak gara, afektua behar dugu eta printzipioz gizon zein emakumeekin goza dezakegu. Gizarte aske batean horixe gertatuko litzateke. Bestekontu bat da hainbat harreman izan ondoren zeuk zeure kabuz erabakitzea nahiago duzula sexu batekoekin hala besteekin harremanak izatea. Pertsonen artean maite dugu elkar, eta ez gizon eta emakumeen artean.

VICENTE.— Eskema sozialak dira arazoak. Haur bat jaiotzen da, eta berehala hasiko da sexu bereizketa, jantzieta, koloreetan... Gizonetako eta emakumezkoen jokamolde idealak zeintzuk diren irakatsiko zaio. Jaiotzetik gara sexualak eta orduan gure aukera oraindik markatu gabe dago. Baina gero gizarteak bere engranajearen barruan sarrarazten gaitu. Ziurrenik homosexualitatea baztertua eta zigortuta egon

ESTAMOS PARA AYUDAR

Servicio de Menores
Adin Gutxikoentzako Zerbitzua
Servicio de la Mujer
Andrazkoentzako Zerbitzua
Sección de Tercera Edad
Adinekoentzako Sailatala
Sección de Grupos de Atención Especial
Arreta Bereziko Taldeentzako Sailatala
Sección de Minusválidos
Minusbaliodunentzako Sailatala
Sección de Atención Social de Base
Oinarrizko Gizarte Arretarako Sailatala

LAGUNTZEKO GAITUZU



Bizkaiko Foru
Aldundia
Gizarte Ongizate
Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de
Bienestar Social